

Esther Goikolea Zabala

*Arrasate
Gipuzkoa (1943)*

Aurkibidea

Biografia



Aretxabaletako Goroeta (Korueta) auzoan jaioa. Gurasoak Arrasaten bizi ziren, baina gerran etxea galdu zuten eta amandrearen etxera joan ziren. Hantxe jaio zen Esther. Hamaika urte zituela berriro itzuli zen familia guztia Arrasatera. Esther mesedetako mojen eskolan ibili zen. Bere burua Koruetartzat dauka. Hainbat elkarrizketa egin zaizkio, hainbat gairekin lotuta; horietako bat Arrasateko hitanoari buruz, Patxi Goikolea anaiarekin batera.

Zintak

ARR-009

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantzak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2005-03-05
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ARR-188

- **Proiektua:** Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goikolea, Danel
- **Data:** 2002-01-01
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ARR-197

- **Proiektua:** Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-05-03
- **Iraupena:** 105 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Biografia; eskola kontuak

- **Erref:** ARR-009/001
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

1943-06-16an jaioakoa Koruetan, Aretxabaletan. Anai-arrebak. Hasieran maestro-etxean bizi ziren. Eraikin berdinean zegoen eskola. Gerora eskola berria egin zen. Eskola kontuak: mahaiaik nolakoak, abadea; gurutzea; Francoren argazkia; e.a. Dotrina euskaraz ikasten zuten.

2. Taldeka lan egiten zuten eskolan

- **Erref:** ARR-009/002
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskola kontuak. Taldeka lan egiten zuten eskolan. Ikasketak; arazoak: "A c"; "en total". Gauza guztiak buruz ikasten zituzten. Ritmora ikasten zuten guztia. Ez du uste pedagogia txarra izan zenik.</p>

Transkripzioa

-Holako anekdotak pasetan zien. Eta gero bueno ba horri, txikitxuek joaten zien euren lekure, haunditxuauek haunditxuauek taldeka. Nik neuken taldien bi mutiko: Arientzako bat, Felix, Aundikua, eta Koruetako beste bat, Jesus Mari. Ta klaro, problemak, "un mercader...", problemak erderaz zien. Ta hortxe nunbait ulertu eitten gauen, ezta? Eta errez-errezak zien "a cómo". "¿A cómo tuvo que vender el litro de o el kilo de...?". "Hi, a cómo dok? Hau dividir". Ze guk zatiketak ez gittun eitten, eitten gauen dividir, "a cómo".

-“A cómo” baldin bazan...

-“A cómo”, hori zan oso erreza, baiña izeten bazan, “en total”: “Hi, en total dok, ze izengo dok, multiplicar edo sumar?”. Hori zan beste arazotxo bat, ez? Eta bueno, ta gero zein fan korrejiruten? Ze faten giñen pizarriakin, abadiana korrejiruten. Ta klaro, txarto eukenak hartzen euen kaskarrekoa. Eta nik ez dakit, neukin biguntxuaue zan. Igual neskatillie nitzelako, barritsue izengo nitzen, baiña bestelan zalaparta larregi ez nutsen emongo ze oso curiosidade haundixe neuken gauzak ikesteko. Eta bueno, holan, gaiñetiko gauzak be ikesten ginttuen buruz. Hormatan, ipintten euskun mapak eta kapitalak, Europako kapitalak, ezta? “Checoslovaquia capital Praga”. Holan, “Italia capital Roma”. Dana zan doiñuekin. Doiñuekin ikasten gauen.

-Kantuen moduen.

-Bai. Kordillerak be bai. “Primero la Pirineica, segunda la Cantábrica, tercera Ibérica, cuarta la Carpetana, quinta la Oretana”. Holaxe ikesten gauen. Uste dot ez zala izen pedagogia txarra.

-Ez? Ikasten zenduen?

-Uste dot. Uste dot. Garai hartarako e!

3. Eskolako ordutegia; gizartearen aldaketa

- **Erref:** ARR-009/003
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:06:35. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Eskolako ordutegia. Gaurko egoerarekin alderatzen du orduko bizimodua. Etxeko giroa; e.a.

4. Abadea izaten zen irakasle

- **Erref:** ARR-009/004
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Abadeak egiten zituen irakasle lanak. Tabakoa erretzen zuen; kuarteroiak.

5. Don Tomas medikua; parterak

- **Erref:** ARR-009/005
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Auto gutxi pasatzen ziren bertatik. "Letxeroak" zuen kotxea. Don Tomas medikuak Sidecar-a zuen. Praktikanteak emagin lana ere egiten zuen. Hark Guzzi markako motoa omen zuen. </p>

6. Elizaren indarra gizartean; erlijioarekin lotutako ohiturak

- **Erref:** ARR-009/006
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Elizak zeharo egituratzen zituen guztien bizitzak. Udaberrian misioak izaten ziren. Orduan ikasitako kanta. Emakumeak, "lau orrixen ikeraz". Umeentzat ere egoten ziren misioak. Garizuma; Pazkoa eguna; Pazkoakoa. Eliza garbitzea.</p>

7. Etxeko garbiketa lanak

- **Erref:** ARR-009/007
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxeko garbiketa lanak.

8. Koruetako eliza; hilarriak

- **Erref:** ARR-009/008
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Koruetako eliza. Hilarriak. Erresponsoa. Ohitura zaharrak. Manta beltza; argizaria; Hilarriak nolakoak ziren. Elizan nola esertzen ziren.</p>

9. Meza; liturgiak zuen eragina

- **Erref:** ARR-009/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

Meza nola ematen zuen abadeak. Monagiloek ikasten zituzten errezoak. Liturgiak zuen eragina. Esaerak.

10. Garizuman gurutz-bidea egiten zen

- **Erref:** ARR-009/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Elizan gurutz-bidea egiten zen Garizuman.

11. Santixauak, herriko jaiak

- **Erref:** ARR-009/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Uda garaian, herriko jaiak izaten ziren, Santixauak. Erromeria izaten zuten auzoan. Soinujolea. Karameleroa.</p>

12. Jaioberriei gatza botatzen zitzaion ahora

- **Erref:** ARR-009/012
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Auzoaren inguruko azalpenak. Baserri batzuk oso urrun geratzen ziren. Bataioak. Ohitura zaharrak. Jaioberriari gatza botatzen zitzaion ahora, "la sal de la vida".</p>

13. Umeen jaiotzaren inguruko dena sekretua

- **Erref:** ARR-009/013
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Noiz konturatzen ziren umeak nola jaiotzen ziren. Gai honen inguruko guztia sekretua izaten zen.</p>

14. Hiletak Koruetan

- **Erref:** ARR-009/014
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Hileta-elizkizunak nolakoak izaten ziren Koruetan. Hildakoa mortajarekin; bulak.</p>

15. Elizakoak eramatearen inguruko ohiturak

- **Erref:** ARR-009/015

- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:36:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Elizakoak. "Untziñuek". Auzoko bati elizakoak eramaten zizkionean abadeak, baserri bakoitzetik pertsona bat joaten zen kandelarekin gaixoaren etxera. Arrosarioa latinez. Elizaren eragina.</p>

16. Don Bonifacio Arenaza abade eta maisua

- **Erref:** ARR-009/016
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Don Bonifacio Arenaza, abade eta maisua. Lehen jaunartzeko argazkia. Eskolan jaiegunak noiz izaten ziren. Zapatuetan ere eskola izaten zuten. Arantzazura erromes oinez.

17. Eskolan dena gaztelaniaz

- **Erref:** ARR-009/017
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Jatorriz Koruetarra izan arren, 11 urterekin Arrasatera joan ziren bizi izatera. Eskola kontuak. Klaustroetan lehenik; Viteriren eskoletan gero. Zer ikasten zuten. Dena erdaraz ikasi beharra; beraien artean ere ezin euskaraz hitz egin. Euskaraz hitz egitearren ez zuten zigorrik izaten Merzedarietan.

18. Gizartean zer baloratzen zen; gizartearen aldaketa

- **Erref:** ARR-009/018
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Koruetako eskolan gehiago ikasi zuela uste du. Gizarte baloreak: emakumeak nolakoak izan behar ziren; zer jakin behar zuten; e.a. Gizartea erabat aldatu da.

19. Umetako kanta gaztelaniaz

- **Erref:** ARR-009/019
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:44:50. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kanta » Kantei buruzko azalpenak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Umetako kanta guztiak erdarazkoak izaten ziren.</p>

20. "Txutxurruka", guriaren gainean egiten zen jolasa

- **Erref:** ARR-009/022
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:56:45. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kanta » Ume kanta

Laburpena:

Umetako jolasak. "Txutxurrukuka" nola egiten zuten (guriaren gainean gora eta behera). Kanta.

Transkripzioa

- P: Bestela, burdiko haga puntan jarri ta atzetik zapaldu ta gora ta behera. Baiñe harek ez zeuken izenik, e!
- Bai, bat jartzen zan haga puntan ta bestiek... "Txutxurruku".
- A!
- Hori zuan "txutxurruku".
- P: A! Bai, "txutxurruku".
- Bat jarten zan haga puntan eta beste bi edo hiru burdixen atzeko... taketien.
- P: Burdixen atzeko... estakan, taketan. Ta hari obatu ta "rrraa!" gora, ta gero "ra!" jarri ta "brrrua!" behera. Hori da "txutxurrukuka".
- "Txutxurrukuka". Bai, zan jolas bat, e! Gure entretenimentu bat zan hori.
- Ta kanturik eitten zan hor?
- P: Ez, ez, kanturik hor ez, "txutxurrukuka" ez.
- Ee... Bai, hori, oillarrena. "Kukurruku... ze...? Olatie. Olatie zetako?"...
- Bai, baiñe... han dantzan gabitzela ez. Bestela bai kantau, baiña... han gora ta behera gabitzela bai?
- [...] "Txutxurrukuka, ze biozu?"...
- "... Olatie. Olatie zeñentzat?", ta bueno...
- Zelan zan?
- Aber:

Kukurruku,

Zer biozu?
Olatie.
Olatie zetako?
Abadie emuteko
Abadie zetako?
Mezie emuteko.
Mezie zetako?
Zerure fateko.

Danok akabetan gauen zeruen.

21. Herriko pertsonaia ezagunak

- **Erref:** ARR-188/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Viteri nor izan zen. Filantropoa. Herriko eskolak berari esker egindakoak. Arano maisua. Pertsonai ezagunak: Etxezarreta; Gerra; eta abar.</p>

Transkripzioa

-Berba egitten genbitzen Viterin eskoletaz. Zein zan Viteri?
-Bueno ba, Viteri izan zan filantropo bat, bere fortuna osua itxi auela eskolak eraikitzeke, eta, nik dakidala, Hernanin, Erreterixan eta Arrasaten. Baiña uste dot herri gehixaotan be badaukela. Egongo da dokumentaziñua nunbaitten. Horra etorri zan Maixu Arano, eta zan maixu bat, berak emuten utsen mutillei eta bere andriak neskai. Eta Viteri fundaziñoko eskoletan emuten zittuen. Orduen Etxezarretako uezaba, eta Gerra, zelan esango dotsut /esangotsut/, lehenon egon zan etxe bat zeren aurrian, San Frantzisko eleixian aurrian, bota ein auena...
-[Okorotegi] dauen lekuan?
-[Okorotegi] dauen lekuan ez. Oin etxe barrixak daz, hor panaderixa bat dau han behian. Barberengoatik oin Elkorok dauken lekure. Hor euen kastillo antzeko, muralla eitten euen etxe bat, eta Gerra hori zan ba be bai liberala ero idea ez oso eleixakuek. Horrek zien apur bat..., bueno eukien ikesitta kanpuen Inghaterran-eta, Paristik-eta ibiltten zien-eta, bueno, hemengo jentiek baiño eukien ba, kultura gehitxuao eukien; hori da. Eta bueno, horrek Maisu Aranon ikasliek izen zienak, jentiek esaten auen kalien igarri eitten jatiela. Ze eukien edukaziño bat, eta modalak be erakusten utsien. Azeran zelan itxi jente nausixei pasetan eta horrek danok be erakusten utsien. Osea, modalak bai, baiña morala be bai.
-Baiña ez moral kristaua?
-Kristau morala ez; etika zentzu gehixauan. Eta bueno, eta horrek eragin haundixa euki auen.

22. Koroeta auzoa: baserriak; errota

- **Erref:** ARR-188/005

- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Koroeta auzoan jaiotakoa. Urkulu errota. Bertan zeuden baserriak; izenak.</p>

Transkripzioa

-Ni jaixo nintzen Koruetan. Urkulu zan errota bat auena oin zubixa moruen dauen lekuan. Hantxe behian auen errota bat. Oin marketan dauena zera, oin marketan dauena ure noraiño dauen-eta. Horman, haxe dauen lekuen, hantxe zuluen. Oiñ badao ba txabolatxo bat eta han ikusten dana neurtzeko eta? Hantxe inguruen auen Urkulu. Eta hor auzen Urkulu, Biziondo -beste bi baserri-, Uxar Txiki, Uxar Haundi, Gixats, Errotazar goratxuao, gorau Errotazar; oiñ ardixek-eta ibiltten dien lekua, Marketegin parien, hor behien euan Errotazar, eta, Mari Pilar-eta nunguak die?, Mendikurtz. Mendikurtza guztiz ez auen hartu urek, baiña bestiek bai. Eta hor errotakuek, Urkulukuek ekarten oskun guri esnie; eta esne ona ekarriko oskun, ze gure amama ibilli zan esniek ekarten Mondrauera, eta itxi zittuenien esniek ekartiai, gure etxerako ekarten gauen, horko Urkuluko esnie ekarten gauen, orduan Koruetako esnerik onena Urkulun egongo zan, pentsetan dot nik. Egunero ekarten oskun guri eta abariai. Ze beste danak baeukien etxian. Eta oso relijiosuek zien, etorten zien mezetara, mutikuek izeten zien monagilluek.

23. Eskola kontuak: abadearen pedagogia; erabiltzen zen hizkuntza

- **Erref:** ARR-188/008
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eskola kontuak. Abadeak ematen zien eskola; oso pedagogia ona zuen. Umeek ez zekiten erdararik eta klaseak euskaraz eta erdaraz ematen zituen. Adin desberdinetako umeak elkarrekin. Zer ikasten zuten.

Transkripzioa

-Eta eskolie emuten oskun abadiak. Pedagogia oso ona auken. Goixien bi ordu, hamarretatik hamabixetara. Atsaldien beste bi, hiruretatik bostetara. Zapatuetan be bai. Eta eskolie zan bilingue.
-Rarue, ez?
-Ez gekixen guk erderaz. Eta orduan esaten oskun: "Aber, etara pizarrak". Pizarrak auzen, zan gerra ostie, oso papel gutxi auen. Eta kuadernue

erabiltzen zan ia ikasten zauenien idazten, eta plumiakin eta tinteruen untaute, eta ia hori plumie emuten otsuenien a baziñan zerbaitt, haunditxua ziñen. Eta ia papela emuten otsuenien idazteko, ia norbait ziñen. Orduen ba lelengo ikasten zan pizarran, gero arkatzak, eta gero plumie. Eta gero letrak auzen redondilla, eta plumie bihar zen diferentia redondillia idazteko. Gero problemak eta horrek erderaz zien: "Un comerciante compró..." Eta guk ba ez gauen larregi ulertzen; batzuetan zentzua hartzen gutsen. Eta ume danak gengozen klase baten, gela baten. Orduen goixien berak auken sistema bat. Guri eraitten oskun kopixa bat, eta txikixauek hartzen zittuen dotriñie erakusteko, ero a-e-i-o-u erakusteko, leiduten erakusteko. Gero guri ipintzen oskun problemak, horrek "comerciante" eta holakuek. Eta nire sasoikuek zien beste bi mutiko eta ni, mailla batekuek hiru giñen. Eta, "Hi, hemen ipintten jok en total". Azkenien zan: cuanto le costó en total?, edo cuanto tuvo que pagar en total?, edo holako zeozer. "En total, hau sumar ero multiplicar izangok". Ze ez gauen esaten batuketak-eta, horrek zien sumar eta multiplicar. En total sumar eta multiplicar. A, baiña zanien a cómo, ordun garbi-garbi dividir. Oiñ, en total izan leikien sumar edo multiplicar, Hortxe zalantzie, baiña a cómo, a cómo zanien beti dividir. Guk ulertzen gauen akaso zentzu apur bat, baiñe inportantiena bagekixen galderie zala. Eta batzuetan, zu, gauzak zaillek zien: hallar la mitad. Hallar la mitad hori bai zala zaille. Buruz etaraten gauen kontue erdixe zenbat zan, baiña hallar la mitad? Gero igual ba etxera erueten gauen problemie eta; etxien baten bat oso listue-ero, aiztie-ero, anaie-ero, jo!, zenbat ekixen! Bikin dividir eiñ, eta hallar la mitad. Buruz eitten gauena... Holako esturak pasauta ikesi gittun.

24. Eskola kontuak: inspektorea

- **Erref:** ARR-188/009
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Inspektorea etortzen zeneko kontuak. Abadeak (Don Bonifacio Arenaza) beldurra izaten zuen, umeek euskaraz egiten baitzuten sarritan eta erdara gutxi. Dotrina nola ikasten zuten.</p>

Transkripzioa

-Gero hak abariak inspektoria etorrenerako-eta billurre eukitten auen, ze, klaro, inspektoria etorten zan, ume danak euskeraz eitten gauen, eta erakusten oskun ba hak be norma batzuk. Sarreran ez dakit esaten gauen "Buenos días" edo "Qué tal está usted" edo, "Qué tal ha descansado". Baiña urteixeran beti-betik: "Usted lo pase bien". "Usted lo pase bien!", "Usted lo pase bien!", "Usted lo pase bien!", "Usted lo pase bien!", "Usted lo pase bien!" Azkenien egun baten neskattilla tontatxuen batek esaten dau: "Sagar ustela pase bien!". Gero hak hartu auen zaparradie! Holan ulertzen gittuen gauzak... Irakurtzerakuan bardin. Irakurtzen gauen: "Hijito mío, dijo su mama." "Jo! Ijittuei ijitto mío? Hau zelan leikek?" Holan ikesi gauen gekixen erdera apurre. Eta kantuen be bai. Kantuek be erderaz erakusten oskun. Bestelan dotriñie euskeraz ikasten gauen. Baiña buruz. Nik ointxe be esango neuke

dotriña buruz. Ba, lelengo galderie zan: "Nor da jangoikoa?" Eta hori ikasten gauen hola makillatxo bategaz, joiaz mahixa: "Izan diteken izakirik bikaiñena, zeru-lurren egille eta jabea, onai betiko zoriona ta gaiztoai betiko zoritxarra ematen dien jauna da jangoikoa". Ze ondo ikasten nauen, e!

-Musika eta guzti.

-Musika eta guzti. Kendu ezkerro musikie, ia ez gekixen. Baiñe horrek ondo ikasitta. Eta gero hamaika urte arte han, eta primeran bizi nintzen ni han.

-Eta inspektoria etorten zanian billur haundixa eukitten zeuen?

-Abadiak eukitten auen billurre. Baiña bueno. Esaten oskun: "Ha etorten danien hau esan, bestie etorten danian hori esan". [...] Ez, ez naz akordetan holako zer haundirik euki gauenik.

-Zela zeukan izena abadiak?

-Don Bonifacio Arenaza, baiña danendako zan Don Boni. Izetez karlista gogorra zan, oso karlistia zan; baiñe gukin pedagogia ona euki auen, eta ondo portau zan. Egurretak be emuten zittuen, eta mutikon batzuk ez daue esango nik esaten dotena, baiñe gurekin ondo portau zan. Erakusten oskun Geografia be bai, ipintten zittun mapak, eta kordillerak: "Primero la Pirinéica, segunda la Cantábrica...", holan. Dana soiñuaz ikasten gauen; baiña niri gauza asko geldittu ein jat, probinziak be bai: "Orense, Lugo...", holan, holan ikasten gauen dana, kantuen.

25. Jolasteko nahikoa denbora izaten zuten umetan; umetako kanta

- **Erref:** ARR-188/010
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Umetako kontuak. Nahikoa denbora izaten zuten jolasteko. Oraindik ez zegoen ez telebistarik, ez irratirik, ezer. Abadeak izan zuen lehenengo irratia. Behizain ibiltzen zirenean abesten zuten kanta bat: "Libiri ta labero...".</p>

Transkripzioa

-Gero hamaika urtekin... Eukitten gauen nahikua denpora jolas eitteko, ez euen telebistaik. Radiue abadianien bakarrik. Halako baten Aranen ekarri auen Philips bat...

-Arane badago Koruetan?

-Arane? Gure etxe ondokuek Arane die, honek Nati Altube, Puri Altube. Arane da hori etxioi. Bai, Uxarte be bai, Uxarte be bai.

-[...]

-Eurak eukien beste etxe bat, Barrutikue, oiñ urak hartute dauan lekuen, eta han eukien euren amama, eta hori etxioi gero eindakua zan, Aranekue. Da etxe..., bajutxue da, ez da oso altua. Eta, bueno, ni han ibiltten nintzen etxeik etxe, guk ez gauken behirik, baiñe behizaiñ. Behizain be denporia egoten zan sobra, eta beste zelai baten egoten zan beste behizain bat, eta alkarri burla eitten gutsen, kantau eitten gutsen. Zaindu biher zien behixak ez zaittezen fan solora, arto-solara ero. Eta adibidez ba

kantu bat zan: "Libiri eta labero, kakaganauzaiñe, kakaganauzaiñe; ganauzaiñe logure, aitta ta ama(k) jo gure, Menditxeko ganauek artue gura aiñe!" Eta horrek zien gure entretenimentuek.

26. Herriko pertsonaia ezagunen inguruko kontuak, umeen ikuspegitik

- **Erref:** ARR-188/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Aretxabaletako medikuak, Don Tomasek, 3 plazako motorra zuen. Praktikanteak ere motorra zuen. Abadeak erre egiten zuen eta zigarroak berak egiten zituen. Guzti horren inguruko hainbat kontu.

Transkripzioa

-Eta gero baten bat geixoik auenien, indiziñuek be ipintten zien, eta Don Tomas Atxabaletako medikuek auken hiru plazako motorra. Motorra elegantie, sidekarra auken; eta gero beste praktikante batek, harek Guzzi, moto Guzzi. "Hi, Guzzi; gutxi egongo diela holako motorrak, esan gura jok honek". A, eta abadiana. Abadien erreten auen asko; libillue-edo hori, papela, markie, gaur egun be egongo da hori markioi: Abadie. Eta berak harekin eitten zittuen zigarruak. Kuarteroie eukan eta eitten zittuen zigarruak. Gurien iñork ez auen erreten, aittek ez auen erreten. Abadie. Honek abadiok, e. Pentsau papela be eurenako eukiela. Abadie izenekua, espeziala. Gure gogoetak horrek.

27. Koruetako auzo-eskola vs Arrasateko eskola

- **Erref:** ARR-188/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Koruetako eskola askoz aberatsagoa. Gabonetan jaiotza ipintzen zuten abadearen laguntzaz. Aldaketa handia Arrasatera joan zenean.</p>

Transkripzioa

-Gure denporie ba pasau ein zan hola. Ze nik hamaika urtetik hamalaura bittartien ibilli nintzen hor, ba goixeko eskolie bakarrik. Koruetako eskolie askoz be aberatsaue zan. Eta gero, gaiñera, zeukotzun denpora asko jolas eitteko. Etorten zien Arientzako mutikuek be bai, harekin be jolas eitten gauen. Eta han tremendo pasetan gauen. Gero Gabonetan-eta, jaiotzaik

ez, orduen Nazimentua ipintten gauen. Abadiak ekarten oskun kamaratik kaja baten figurak-eta, betik beste kaja baten, izarra ia eindda auen, hari bonbillia ipiñi, eta piñu baten ipintten gauen, beti bardiña zan. Eta bueno ba, parte hartu eraitten oskun geuri ipintten nazimentuoi, eta bidiek eitten serrautsekin, eta... Niretako izen zan kanbixo haundixa hona etorri giñenien.

28. Arrasateko medikuaren etxera kriada 14 ureterekin

- **Erref:** ARR-188/016
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:31:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>14 urterekin D. Calixtoren etxera joan zen kriada. Arrasateko mediku ezaguna izan zen. Ospitale zaharraren zati bati, "Dispensarioa" esaten zioten; biriketako gaixotasunak zituztenak joaten ziren bertara.</p>

Transkripzioa

-Eta gero ba ia haundi ingo nintzen, ia hamalau urtekin Don Kalistroengana kriada. Harek be baeuken neskatilla bat Kukaratzatan, eskolan; haren bille etorri eta gero hari etxera lagundu, eta ha entretenidu biher izeten neuen gabeko beratzirak arte.

-[Zein zan Don Kalisto?]

-Don Kalisto? Don Kalistro Mondraueko mediku famoso bat izen zan. Aramaixoko-eta jente danak don Kalistro deiketan utsien. Itxurie euskal problemie hobeto [ezauketan] jakon. Izetez zarauztarra zan. Gizon bat... dispensarixuen ein auen lana. Dispensarixue orduen zan, zelan egon zien pulmoiko geixotasun asko, ba Mondraue izen herri bat holako geixotasun asko egon zana, eta horreik aislauta egon biher zien bestiengandik kontajiosue zalako, eta ondo zainddute eta garbittasunakin eta hori. Eta Mondrauen auen, oin "La Ventana" badau ba txutxerixak-eta saltzen diena? Hortxe, horixe izan zan. Bai hospitall zarrian zati bat, zati haundi bat zan dispensarixuendako. Horrek izen zien dispensarixuendako. Holaxen deiketan jakon. Eta hor bakarrik egon zien pulmoittik eozenak. Bueno ba haren etxera. Maria Elena auken neskatillak izena. Beste bi mutiko be baaukien, baiña harek egoten zien Bitorixen interno Marianistetan. Erropia zikiñe eta garbixe, paketie bialketan jatien rekadistiekin eguenetan. Eta harek mutikuek be ez zien etorten, bakaziñuetan bakarrik etorten zien, han eukitten zittuen. Gurasuek astien behin-edo bisitatxon bat eitten utsien, eta han.

29. Zarautzera udako oporretan

- **Erref:** ARR-188/017
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:31:10. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Medikuaren etxean lanean egon zen denboran, asko irakurri zuen. Udan, Zarautzera joaten zen beraiekin. 14 urterekin ikusi zuen lehenengoz itsasoa.

Transkripzioa

-Han euki nauen aukerie irakurtzeko, bibliotekia eukien etxien. Eta butakak!, butakak eukien. Eta zan etxe zahar haundi bat; hori farmaziei oin bota daue ba, plazako farmazia? Haren goixen bizi zien. Ha beroketako bi estufa. Iketzakin ez, kokakin. Berotasun gehixao emuten dau; bi estufa, bat eukien aurrekaldien eta bestie atsekaldien. Bueno, han deskribirir nauen hori. Eta gero harek uran faten zien beranietan Zarautzen, etxie eukien, eurak Zarauzkuak zien-eta. Lenengo aldiz itxasua hamalau urtekin ikusi nauen. Bai, hara fanda, klaro. Baiña orduan denporan Mondrauetik faten zan jentie diez y ocho juliuen, jai izeten zana, Santixao egunien... Trenien, ein trasbordue Maltzagan, eta trenien faten zan jentie Zarautzera, plaiara. Niri tokau jaten horrekin fateia, neskatilla zuri-zurixe. Eta gero egun guztie uretan, egun guztie. Ze, klaro, niñerie nitzen, neskatilliaz batera. Eta harek han eukien lehengusuek-eta. Bai, han ondo pasetan nauen. Bi uratan fan nintzen Zarautzera. Eta gure eskola-kontuek horrek.

30. Neskatan eta mutiletan Eskoriatzako plazan

- **Erref:** ARR-188/018
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:32:50. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Mutiletan nola egiten zuten. Musika Banda egoten zen jai egun arratsaldean. Mutilak dantza eske joaten ziren. Bi pieza jo ondoren, gramola jartzen zuten. Tarte horretan, neska-mutil asko pasiora joaten ziren. Alguazilak plazan tokia egiten zuten.

Transkripzioa

-Eskola-kontuak aparte itxita, zuk ez dozu ezautu neska-laguntzarik eta?
-Ez, ze ni ia Mondrauen bizi nintzen, eta Grupo San Juaneraiño, baiñe portala egoten zan okupaute. Segun zenbat jente bizi zan, nik suertie nauken, aizta bat bakarrik nauken, eta nire portalien sasoi bardiñeko beste nobixorik ez zan egon. Eta suertie euki nauen. Eta arkupeietan be bauzen eskiñatxuek. Ez dakitzu, oso arranpalue izeten zan portaletan sartzie, ia nobixo serixue euki biher zeuen. Baiña han eskiñatxuek bauzen, eta han auzokuek eskiñak hartute eukitten zittuen. Hori bai, ze izeten zan, bandie egoten zan Mondrauen; atsaldeko xeirek inguruen-edo hasten zan bandie, jotzen zittuen bi pieza, harek dantzan ein biher zien derrigorrez. Urteten gauen neskak dantzan eta mutillek etorten zien dantzie eske: "Mesedez..." Eta bueno, ezin bazan esan ezetz, zuk ez bazauen gura batekin dantzan

eittie, beste batekin gura bazauen, ba batzutan buelta ein eta gero soltau bestiekin fateko, eta holako... holakuek. Eta gero egoten zan gramolie. Deskantsue eukitten auen, bi pieza jo eta deskantsua musikuek. Batzuk geldiketan zien gramolan dantzan, eta beste batzuk, eta gehixenak, estaziñoraiño pasia. Emuten auen estaziñotik joan eta etorrira eitteko, barriro bi pieza tanda dantza eitteko. Gero afaitara, afalordua izeten zan, zortzi t'erdia-edo. Eta barriro beste bi pieza-tanda egoten zien, eta azkenien beti-beti-betik pasodoblía. Mutil batzuk euzen ez zekixienak dantzan, eta azkenengo piezarako ia apurtxo bat entonauta egoten zien txikituekin, eta pasodoblía. Animauena izeten zan haxe. Eta aguazilla egoten zan, jentie plaza erdiraiño faten zan, eta lekue ixteko, makillatxuaz eskiñie jotén-jotén-jotén, leku itteko dantzan itten auen jentiei. Eta eurixa zanien be aterkiñe zabaldu eta dantzan eitten gauen.

-Orduan jentia kapiduzen ez zanien, aguazillak apartatetan zittuen?

-Bai, eskiñara.

-Begiralie?

-Bai. Eta begiralie izeten zien ama danak; kontroletan auen... Harekin dantzan... "Aurreko domekan be harekin ibilli zonan dantzan. Enterauko non." Eta gero enteretan zien zerbait auen, ez auen edo. Dana auen kontrolaute; eta handik ezin zeikizun urten. Takolora pasietan faten zienak-eta, ixexkomulgaute. Hori ia zan... Betik hesixen barruen ibilli biher ziñen.

31. Neguan musika eta dantza merkatu plazan

- **Erref:** ARR-188/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:37:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Severo Altube plazan, merkatu plaza zegoen. Neguan han egiten zen dantzaldia. "Berduri dantz".

Transkripzioa

-Eta gero, oiñ Sebero Altube dauen lekuan euen berdura-plazia, eta neguen han ipintten zan dantzia. Berdura-zestuek eta danak ipintten zien eskiña baten, eta han euzen aulkixek eta hori danak, eta jotén auen Bitoriak, Bitoriak jotén auen horrek tanborrok egoten dienak, baterixia. Hiru ero lau. Eusebio Gomez zan beste..., eztakit tronpetie edo zer jotén auen. Ha bai, ha zan..., baile zerraua zan ha! Baile zerrae. Eta gero ba izena be ipiñi biher jakon baile zerraei. Eta bakitzu zer izen ipinita euken? El Verdury. Verdury Dance (Dantz) zan. Eta al Verdury faten gitzen neguen, berdura-plazara dantzan. Behien egoten zan arrain-usaiñe ta; goixen berdurie egoten zan, han be zeozen usaiñe egongo zan, baiña bueno. Abrigo eta guzti hantxe dantzan.

32. Emakumeak eta taberna giroa

- **Erref:** ARR-188/020
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:37:45. **Bukatu:** 00:39:20

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Emakumeek txikiteorik ez zuten egiten. 1963 inguruan hasi ziren neskak tabernara bakarrik joaten.

Transkripzioa

-Txikiteue zelakua izaten zan?

-Txikiteuek? Ba beitu, txikiteuena dauket nik kontu hau esateko. Txikiteue emakumak ez geuen eitten. Txikiteue eitten auen gizonak, eta neure sasoi, eta nabil esaten hirurogeta hiruan edo, hasi giñen emakumak tabernara bakarrik sartzen. Eta honek, Pepe Agiriano-eta, ondion be hor Portaloian egoten da hori, horreinddako izen zan izugarrizko eskandalua. Ze euren espazio bat guk hartu ein gauen. Eta akordetan naz behin lanetik urtenda, alkarrekin lana eitten gauen, lanetik urten eta etorri nintzen tabernara; eta orduen Bar Mendi zan ez hola taberna-taberna, hola Plus Ultra zan moduko taberna; zan hola apurtxo bat holan kafeterixa estilora-edo. Eta bueno, Coca Colan bat edo, Kasen bat edo, ze aukerak be ez euzen asko gehixao: ardaue, zurixe, baltza, koiñak hiru edo lau marka, Jerezen bat, Malaga Virgen-eta, ba aukerak be ez euzen asko. Guk Kasa-edo, modernuenak horretxek zien Kasa eta Coca Colia, holakon bat hartzen. Sartu zien gizonok. "Ez jakixau ze ikusi bihar doun, andrak hasi dittuk tabernara sartzen bakarrik eta. Ointxe ez jakixau ze ikusi bihar doun!" Larri.

33. Sexuaren araberako desberdintasunak lan-munduan I

- **Erref:** ARR-188/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:41:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasunak. Lanean ere, nahiz eta lan bera egin, soldata desberdina izaten zuten.</p>

Transkripzioa

- Lanera fateko ez oskuen esaten hori. Lanera fan ezkerro, faten giñen lanera, irabazten gauen lanpostu bardiñien, eta hori kooperatibetan!, erdix.., bueno, gutxitxuau. Ehuneko ehun ez geuen irabazten gizonan moduan. Orduen, akordetan naz. euen konsejillo sozialian Altamirako Bixenta. Eta zan andra langillie; eta, klaro, lan bardiñe eitten auen, gutxiao kobretan auen, betik euen horrekin. Eta gaiñera euken, segurue euken "una caja de compensación". Osea, ez zan seguru bat seguridade soziala. Orduen ezkonduak eukitten zittuen gastu gehixao. Umiek eukitten zittuenak, umien geixotasune... Eta solterak ba ez gauen eukitten

hainbeste gastu, eta solterak bardin pagetan gauen, eta eitten zan "caja común". Eta gero gehixao gastau auenak geldiketan zien urtien hasieran parien bestiekin. Bueno, hori holan. Akordetan naz behin gizon batek bosgarren semie euki auela, eta: "familixie euki dou", eta "zorionak!" eta "zorionak!" ebitzen eta. Eta esaten dutso Bixentak: "Hi, bosgarrena? Nahikue dok, e! Ze itten dok hainbeste ume eukitteko?" "Hi, ze ingo junau ba, jangoikuek emuten joscun eta." "A, bai, e? Kontseziñoko mojei ez jutsiek ba emuten ba jangoikuek! Eta niri be ez, niri be ez justek emuten".

34. Sexuaren araberako desberdintasunak lan-munduan II

- **Erref:** ARR-188/022
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:41:35. **Bukatu:** 00:45:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Emakumeak kooperatiban sartzen zirenean, ezkonduz gero lana utzi behar izaten zuten. Enpresa kapitalistetan egoera zein zen. Emakumea ezkontzen zenean, dotea jasotzen zuen. Beraien generazioa, aurrekaria gauza askotan.</p>

Transkripzioa

- Kontratue firmetan gauenien sartzetarakuen kooperatiban, ia firmau eitten gauen ezkontzen bagiñen urten ein biher gauela. Baiñe zuk han papelak firmetan zittuenien, zelan ez zeukatzun asmoik ezkontzeko, eta ezta pentsau be sekule aillegau biher ziñenik hara, firmetan zeuen eta sartzen ziñen ba... Baiña klaro, niri pasau jaten moduen, hogeta hiru urtekin ia pentsau nauen ezkonketie, etxie be hartute geuken, eta ezkontzen banintzen soldata batekin geldiketan nintzen. Bueno, hau etxiau alkilau geuen urtebeterako, eta urtebete gehixao; eta nire proposiziñuek zien eleixaz ezkondu; ze, hori bai, oso katolikuek giñen, eta juzgauz ez ezkondu, oin aldrebes eitten dana. Ze juzgauz ezkonketan banintzen, lanera ezin nintzen joan. Baiña hori zan eskandalu gogorra, eta ezta, ezta... Eta Antonek be ez usten ametiduten hori. "Bueno! Hori zelan baiñe!" Bueno, ezkondu nitzen, izen deille gure dana, eta galdu nauen lana, eta nire moduen askok. Ondiok urte batzuk egon zien ba jentiek urten izan biher auela derrigorrez. Ez zan opziñozkue, eta beste enpresetan bai, kapitalistetan zan opziñozkue. Oin, euken tranpa bat: ezkonketan zanai emuten utsen dote bat kapitalistetan, enpresa kapitalistetan. Ba zortzi urte lana ein bazeuen, urteko hainbeste. Eta klaro, antikonzeptibuek be lenengo hartzen hasi giñenak die nire sasoikuek, eta hori medikue bazan zure fabore, ze prohibidute euen ez elixiagaittik bakarrik estauduegaittik be bai. Orduen, klaro, normalena izeten zan ezkondu eta handik urtebetera umia eukittie. Eta ez bazeuen eukitten, mundu guztiek preguntetan otsun: "E, ez dozu balixo, ala?" Hori esaten zan. Orduan jentiek zer eitten auen, ba, klaro, hori diruoi hartzearren, ba urten eitten auen fabrikatik, gehixenak urten eitten auen. Ez baeukien postu on-on bat, edo gero amaman bat umie zainketako. Ba bueno, guri halan tokau jakun. Baiñe gure generaziñue izen giñen lenengo prakak jantzi gittuenak, oso txarto ikusitta. Ikusitta dauket Bilbon, goxeko zortziretako mezetan, San Nikolas eleixan, neska bat, mendirako-ero, prakakin euen. Eta abariek pulpittotik kanpora

bota auen ha. Osea ke pentsau zenbat gauzatara adaptau biher izen garen gu. Batzutan pentsetan dot plastilinazkuak garella. Zelan aldatzen diren urte gutxitten...

35. Erlijioaren garrantzia gizartean

- **Erref:** ARR-188/023
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:45:05. **Bukatu:** 00:49:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Pentsakera aldaketa. Erlijioaren garrantzia. Acci&ocute;n Cat&ocute;lica, La Tercera Orden Franciscana...</p>

Transkripzioa

-Zuk esan dozu oso katolikua zintzela. Oin ez zara hain katolikua.
-Beitu. Ni oso katolikia nintzen, eta uste dot Mondrauera etorri arte ez nintzela izengo hainbeste. Han eleixara fan biher giñen, baiña gure aitte ez zan faten eleixara. Ama faten zan, baiña igual zan sozialki ez euelako oso ondo ikusitta; ez dakit zenbateraiño fediaz fango zan; fan eitten zan. Gure etxien ez zan errezetan erresaixoik. Anai bat seminarixora be fan zan. Bi urtetan egon zan seminarixuan eta etorri zan etxera. Osea, libertadie euan etxian: "Nik abare fan gura dot." "Ba fari." Arriue gertatu eta fan. "Nik mezetara fan gura dot." Preguntau biherrik be ez. Eta gehixao da... Mondrauera etorri gintzenien Mondrauen euen eleixarako joera haundixa. Eta gero beste espaziorik be ez geukan emakumak, e. Orduen izen biher ziñen "Acción Catolicakua", edo "de La Tercera Orden Franciscana", eta ni horra faten nintzen, ze hor frailliek eozen, eta frailliek zien euskalduntxuauek. Ez dakit ba, zabaltxuauek edo holan.
-Zer zan "La Tercera Orden Franciscana"?
-Hori ba franziskanuek euken, itxurie, hiru ordena. Bat zan seglarrena, bestiek zien hermanuek edo holan, eta bestiek zien mezakuek. Eta zan como "Hijas de María" edo, holako asoziaziño bat zan "La Tercera Orden". Gaztiek eta zaharrak izeten zien. Eta, klaro, han emuten otsuen benedeziño berezi bat, eta zuk, talde horretakua baziñen, ba pribilegio batzuk zeuketzun, ez dakit zer eta. Akordetan naz San Frantziskoko eleixan, eskapularixo haundixekin egoten ziela gizon nausixek. Eta guk ez gauen ipintten hori eskapularixo haundixoi, baiñe bai faten giñen billeretara, eta izeten zien billerak holan apur bat "tipo social". Gure kontuak komentetan gittuen, eta batez be eukien lokal bat oso ona kalefaziñuekin. Eta guk ez geuken beste lokal bat egoteko eta hara faten gitzen, eta fraille gaztiek egoten zien, eta ondo pasetan gauen.
-Zer pribilegio egoten zien hor ibiltteagatik?
-Gero zerure fatekuek danak. Bai, bai, bai, danak zien zerure fatekuak gero, bai, bai. Eta guk eurai zer aportauko gutsen? Ba San Frantzisko eleixan obrak ein zittuenien hauts pila bat tragau gauen, haxe garbiketan eta holan, baiñe bestelan guri oso tratu ona emun oskuen. Frai Rufino beti han egoten zan prest zeoze ekarteko... Eta bai, bai. Lokala gazterixiendako eukitten geuen eurak itxita. Ze bestelan aiuntamentutik eta holako lekutatik ez euen ezebe, batez be emakumandako. Ez giñen oso konsziente, hori be esan bihar dot. Eta hor ba beti be ekarten oskuen

komadrona bat, edo holan txarla batzuk emuteko. Eta nik emakumien anatomia eskolan ez neuen ikesi; hortxe emundako txarlatatik... Eske ez eozen bide asko zabaldua. Bidiek oso-oso mugatuak zien. Eta esaten dotsut oso erlijiosuek giñela, ba dana zalako oso..., ezin ziñen joan beste leku batera, ez, hantxen zeukotzun, etxetik kanpora hantxen zeukotzun apoiua.

36. Maiatzeko loreak

- **Erref:** ARR-188/024
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:49:15. **Bukatu:** 00:51:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Maiatzeko loreak; goizero, 06:30eko mezara joaten ziren. Ondoren, lanera kooperatibara.</p>

Transkripzioa

- Eta bueno, gu faten giñen xei t´erdietako mezetara, "Maiatzeko lorak" izeten zien, han be pribilejion batzuk irabazten zien, ez dotsut esango garbi zeintzuk, baiñe goxero faten bazintzen maietzien, orduan Ama Birjiñiakin egoten ziñen ondo; eta xei t´erdietako mezetara.

- Egunero baiña?

- Egunero. Eta egoten zan fraille bat, Abaitua, txiki-txikiñe zan, eta papelak, kantu-papelak emuten oskun, eta aizta bixok faten giñen, "hor egongo don Xague... -Xague esaten gutsen-, Xague papelak emuten". Ilusiñuaz faten giñen, gero kantau eitten gauen. Gaiñera euskal kantuek kantetan zittuen, frailiek euskeraz emuten auen. Eta Ama Birjiñiaz ondo egongo giñen, ez dakit, ni...pozik faten gintzen, ez dakit zegaittik. Eta goixetan jaikittie kosta eitten jakun. Eta aittai esaten nutsen: "Aitte - [pentsau bera ez zala faten mezetara]-, aitte, bixer deittuko dustazu sei t´erdietako mezetarako?" Ze despertadorie be bat egongo zan etxe guztirako. Eta "bai." Ixten oskun hamar minutu gehitxuau ohien egoten. "Xeirek eta hamar!", deiketan oskun. Jantzi, mezetara. Etxera etorri, armozau, eta oiñez Elektronikara. Hotzik barik, e. Gero beratzi ordu lana ein.

37. Kooperatibako jangelako kontuak

- **Erref:** ARR-188/025
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:51:05. **Bukatu:** 00:52:05

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Kooperatibako jangelako kontuak.

Transkripzioa

Han bertan euen sukaldie, eta bazkaixek be bertan eitten zittuen. Ni lenengo fan nintzenien hara bazkaitten, jo!, jente danak esaten auen bazkaixa txarra zala. "Honeik etxien ze jango ete daue?" Bazkai ederra! Lentejak, babak, oso ona; okela gisaue... Baiña handik hille bire jan danak eukien gusto bardiña. Lenengo okela gisauei hartu nutsen iguiña. Gero lentejai, gero babai. Azkenien bakarrik ogi bollotxue... A, eta ardaue emuten oskuen, baso bat ardaue be emuten oskuen gure geuenai. Haxe ogixe eta ardaue jan-eta... Gero etxetik erueten be beste denporaldi bat eitten gauen. Gero barriro jangelara.

38. Lan baldintzak kooperatibatan

- **Erref:** ARR-188/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:52:05. **Bukatu:** 00:53:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak

Laburpena:

Lan kontuak. Kooperatibatan, "sábado inglés".

Transkripzioa

-Gauza baten giñen pribilegiauek kooperatibakuek: geukela "Sábado Inglés". "Sábado Inglés", zapatu atsaldia jai. Ondion orduan, nabil esaten hirurogeta bigarren urtian, hemengo ba Zerrajerakuek-eta Elma-kuek-eta ez eukien, zapatu atsadetan be eitten zan lana xeirek arte, xeirek arte lana. Eta gaiñera danak batera sartzien zien eta danak batera urteten auen. Joten auen adarra esaten jakona, bozinia, adarra esaten gauen guk; eta hiru adar jotien zittuen zortziak laren gutxiautan, zortzirak bost gutxiautan, eta ia zortziretan. Eta ia atiek ixten zien, eta ia guardie atien gero. Eta kooperatibak modernotxuauek, harek ia erlojue piketako, tak!, ala! Eta "Sábado Inglés". Oñ sartu biher bazien orduak -beratzi ordu eitten zien egunero- "Sábado Inglés" etarateko. Lan bat bukatu biher bazan, ezin zan esan ezin naz geldittu, ze hori oso gaixki ikusitta euen. Eta gero etzan kobretan igual. Lenengoko urtietan behintzet etzan kobretan. Eta holan.

39. Gizarte aldaketa: belaunaldi berriak

- **Erref:** ARR-188/027
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:53:45. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Beraien belaunaldia, aurrekaria hainbat arlotan: janzkera; aisialdia; sexu kontuetan; eta abar.

Transkripzioa

-Ba guk lenengoko prakak, lenengo tabernan sartu, lenengoko antikonzeptibuek, gu izan giñen "los conejitos de Indias". Eta gero begitu zenbat gauza ikesi biher izan doun.

40. Familia giroa: jatorria

- **Erref:** ARR-188/028
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:59:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea

Laburpena:

Aitajauna, Amaitermingoa zen. Kubako gerrara joan eta gazterik hil zen bertan. Amandrea, alargun eta seme txikiarekin Koruetara joan zen serora bezala. Gerora maisuaren etxera joan ziren bizi izatera. Amandreak denda-taberna txiki bat ireki zuen.

Transkripzioa

-Aittajauna zeatik ez zan faten eleixara?

-Bueno, beitu: gure aitte geldittu zan aitta barik oso gazteik, zazpi urtekin-edo. Eta orduen bere...

-Nungue zan bera?

-Aittaitte zan Amaitermingua. Amaitermin dao Otxandixo eta Urkiola bittartien. Eta Eleixaz zien otxandixarrak, ze bautizauta auen Otxandixon, eta juzgauz edo aiuntamentuz zien Abadiñokuek. Ze Abadiñon terrenuek die Urkiolaraiño. Eta bere aitte zan "peón caminero", eta eukien etxe bat, kamiño bazterreko etxe bat, eta seguramente hori pribilegio hori eukiko euen bere aittek egon zalako Kubako gerran. Baiña han gerran egon zien danak gazteik hil zien, eta nire aittite be gazteik hil zan. Eta orduen amama geldittu zan zazpi urteko mutikuaz alargun, eta fabrikara fateko aukerarik ez auen eukiko, eta krieda fateko semiagandik separau ein biher zan, eta etorri zan Koruetara "amakasa", Don Valentin Madinabeitia baten, uste dot zala, etxera. Orduen abadie, ba... prediketan zittuen gauza asko relijiñuei buruz, baiñe etxian ipintten zan babalapikue, eta babalapikuei sartzen jakon urdaixe eta txorixua. Txorixo osue jaten auen abariek, eta urdaixe erdibana jaten auen amakasiek eta mutikuak. Eta, klaro, dotriñie ondo auen, baiña ha mutikuei ez jakon gustetan asko. Abariek eraten auen ardaue; amakasiek be neurtute ardaue apurxo bat, baiña mutikuei ez jakon emun bihar, eta mutikuek be gureko auen ardaue, baiña begiratu eitten utsen bakarrik ardauei. Eta holan mutikue konturatzen zan abadien eleixan prediketan auela gauza bat, baiñe etxien harek ez ziela ipintten praktikan. Eta gero berak hamalau urte eukienien edo holan, hartu auen maistroetxie alkilerrian, eta amama, nire aitte eta bere ama, pasau zien maistroetxera bizitten. Abariek emuten zittuen eskolak maistruen orde. Eta, hau esan bihera dau, ha maistrue bialdu ein auela abariai traba eitten utselako, ze

bi jauntxo lartxo zien auzo baten, eta orduen abariek erabaki auen berak klasiak emun, eskolak emun eta haren etxian errentia be berak hartu. Eta orduen nire aittan amak auzoko esniek batzen zittuen, hiru astokin etorten zan Mondraueraiño, Mondrauen saltzen zittuen esniek. Gero, han euen dendatxo bat, eta Mondrauetik, almazenen batetik eruengo zittuen atxikoria, bolauek... Bolauek badakitzu zer dien? Azukarraz eitten zien holako boillotxon batzuk moduen, eta urei botaten jakon ha, eta segittuan urtuten zan; eta ha txokolatiakin, txokolatiai bultzaketako, ur azukardune. Gero gailletak be bai: gailletak bi klase egoten zien, orduan ez euen hainbeste aukera: barkillozkuak eta mariak. Eta "pastelak" esaten gutsen, ez gailletak, pastelak esaten gutsen guk. Eta leña, jaboie... holako denda bat. Holako denda bat, eta tabernatxo bat moduen be bai, ardaue eukitten auen, eta orduan auzoko agurak hara faten zien jokuen eitteko edo merixendateko edo; batez be neguen. Eta domeketan zabalketan auen bere dendioi, mezetara etozenak, ba lapikokara salda be eukiko auen, eta andrak han eitten auen tertulixie eta agurak be bai, eta bueno. Ondo. Eta bizimodue atara auen holan nire amamak, e!

41. Aitaren nondik norakoak gerra garaian

- **Erref:** ARR-188/030
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:01:45. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita Zerrajeran hasi zen lanean. Frontetik Bilbora zaurituak eramaten zituen bere autoan. Gerrako kontuak. Santoña; "Puerto de Santamaría"ko kartzelan egondakoa. Kartzelatik itzuli zenean, ezin izan zen Zerrajeran sartu berriz lanera.

Transkripzioa

-Gero hasi zan Zerrajerara etorten. Ordureko zelabaitteko sindikatuek egongo zien Zerrajeran, eta gure aittei tokau jakon gero gerrara fateie.
-Ordurako kotxia euen?
-Bai, aurretik euen kotxia. Eta tokau jakon fateie... Ez, ez zan fan gerrara zertute, zelan esaten da...
-Deittute.
-Deittute ez zan fan. Joan zan borondatez, eta ibiltten zan frentetik Bilbora erueten heriduek bere kotxiaz. Orduan... heriduek eta hilddakuek, hilddakuek kanpasanture, baiña batez be heriduek. Eta guk gauken tia bat, tia Juliana, Uribarrin bizi zana, Bilbon; harek euen hiru seme frentian, eta gure amak be hemendik ihes ein euenien, haren etxien egon zan. Orduen aitta gerrara fan zanien, eta ibilli holan, ba azkenien abanzadak egon zienien eta ezkutau ein biher izen zanien, kotxioi itxi auen garajen baten edo, ez dakit zan Bergarako garajen baten edo, eta bera ezkutau ein zan, ezkutau zan Somorrostro aldeko pariente batzuen etxian; pariente... ospizianuek zien, baiña bai. Eta eurak delataute, hartu nauen. Eta gero han ein utsien holako juizio morukon bat, eta, klaro, etxeko jabiai be, klaro, delatau ein auen, baiña delittua euen, eta orduen ba gure aittak esan

auen: "eske ez daki irakurtzen, eta nik presentau dutsat papel batzuk esanaz legal nenguela eta hori, eta ez dauko delitturik berak". Baiña gure aitte eruen auen Santoñara lenengo, eta gero Puerto de Santa Mariara. Eta, bueno, gero gerra denporan ba gorrixetara pasau zien edo gorrixak zien. Efektu danetarako gure aitte zan gorrixa. Eta kartzelatik etorri zanian Zerrajeran ezin izan zan sartu gorrixa zalako. Orduan abariaz erueten zan oso ondo, baiña eleixara ez zan faten.

42. Hika inguruan

- **Erref:** ARR-197/019
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:45:14. **Bukatu:** 00:47:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gurasoek hika egiten zieten. Senideen artean hika egin izan dute. Koruetan neska-mutil denek beraien artean hika egiten zuten umetatik.

43. Ikaskideek bazekiten eta euskaraz!

- **Erref:** ARR-197/020
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:47:22. **Bukatu:** 00:49:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Nagusiagoei eta gurasoei zuka egiten zieten. Estherrek Arrasaten eskolan erdaraz ikasi zuen. Urte asko geroago, bere eskolakideek euskaraz bazekitela konturatu zen.

44. Semeari hika, alabari zuka

- **Erref:** ARR-197/023
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:58:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Euskalkia eta hika ez dira eskolan erakutsi. Patxiren semeak lagunekin hika egin izan du. Patxik semeari hika egin izan die eta Estherrek alabari eta ilobari zuka.

45. Hika egiteak gaztetasuna sentiarazten dit

- **Erref:** ARR-197/025
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:01:17. **Bukatu:** 01:03:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika berreskuratzea aberastasuna litzatekeela uste dute. Pantailekin harrapatuta ikusten ditu inguruko denak; zukarekin nahiko lan. Hikak gertutasuna eta gaztetasuna ematen diela dio, eta konfidantza.

46. Umetako garaiak Koruetan

- **Erref:** ARR-197/033
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:19:15. **Bukatu:** 01:23:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Beraiek ez beste denak ziren baserritarrak; haiek belarretan ibiltzen ziren eta beraiek arbolapean lasai. Ipurtargiak batzen ibiltzen ziren. Mutilak igeri egitera joaten ziren, neskak ez. Txoritan, amorrainetan, pilotan... ibiltzen ziren mutilak eta neskak tortoloxetan, harri-harrike, soka saltoka, txirikiletan... Mutikoekin sakalamangaka. Txopi jolasean aritzen ziren elkarrekin.

47. Soldata parekidea eskatzen

- **Erref:** ARR-197/035
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:24:37. **Bukatu:** 01:27:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Eskola profesionalik ez zeukaten emakumeek. Zein lantegitan jardun zuen kontatzen du Estherrek. Lanpostu berean, emakumeek %10 gutxiago kobratzen zuten; soldata bera eskatu zutenekoa kontatzen du.

48. Lehenengo arropa garbigailua moldatu zuen Patxik

- **Erref:** ARR-197/039
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 01:30:09. **Bukatu:** 01:34:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa garbigailua egiteko hasierako sistema azaltzen du Patxik. Berak egin zion moldaketa Arrasate kooperatiban. Oso edukiera txikia omen zeukan. Esther ezkondu zenean, garbigailu automatikoa ipini zuen etxean.

49. Telefonoaren eta kotxearen eraginez, ingurukoekin harreman gutxiago

- **Erref:** ARR-197/041
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 01:35:01. **Bukatu:** 01:38:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Ezkondutuek zenean, telefonorik ez zeukaten. Senide denek batera hartu zuten telefonoa eta zenbaki jarraiak dituzte horregatik. Telefonoaren eraginez, auzokoekin harremana gutxitu egin zela dio Estherrek, baita kotxeen eraginez ere.

50. Dena berrerabiltzen zen

- **Erref:** ARR-197/043
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:39:38. **Bukatu:** 01:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa

Laburpena:

Garai batean zaborrik sortu ere ez zuten egiten, erre egiten zituzten eta. Errekara jaurtitzen zuenik bazegoen. Egunkari papera gorde egiten zuten, paketeak egiteko edo komuneko paper moduan. Azukrearen papera ere gorde egiten zen, berrerabiltzeko.

51. Dendara norberak ontzia eraman behar

- **Erref:** ARR-197/044
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:42:34. **Bukatu:** 01:44:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa

Laburpena:

Olio eta esnea ontzietara betetzen zizkieten. Lata handietatik hartuta, katiluetan erosten zituzten piperrak, tomateak... Esnea egosi egiten zen eta ihes egiten zuen sarri.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com